



BARREN
TOKIKOM



**Inork
zapaldu
gabeko
eremueta**

Antxustegi

Zatoz gu ezagutzera!



Olaso Industrialdea, Olasope 5
Elgoibar
943 743 344
www.antxustegi.com



ZERAMKA
ETA HARRIA



LURZORU
LAMINATUA



MARGOZTUTAKO
PAPERA



BAINUGELA



BURDINDEGA



ERAKUNTZARAKO
MATERIALAK



CORDON
VILARCHAO

DEKORAZIOA

Kanpo eta barneko estaldura
Zaluzko ezarpenak
Lakadura egur, aluminio, PVC.
Pintura orokorra



San Pate, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 moduloa
Tel. 943 740 570

A. Garate

Era guztietako igeltseritza lanak egiten aditua

angelmgarate@gmail.com

Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

- ❖ Manikura express
- ❖ Manikura osoa
- ❖ Azazkal luzaketa gelarekin
- ❖ Gel mantenua
- ❖ Pedikura osoa
- ❖ Esmalte iraunkorra
- ❖ Esmalte iraunkorra kentzea
- ❖ Azazkaletatik gela kentzea



Merkaturatze-eskaintza:
%20ko deskontua zerbitzu guztietan

Tel.: 634 414 195

<https://www.facebook.com/LUBANAAILS22>

lubanails22@gmail.com

MARTXOAREN 1etik AURRERA

Agurtzane ileapaindegian
Santa Ana Kalea, 18 - Elgoibar

Izpi Alaia ileapaindegian
Ferrerias Kalca, 28 behea - Arrasate



ABEL ARRIAGA



“Elkarbizitzan aurrera egin nahi badugu, ezin ditugu debate guztiak irabazteko planteatu”

Datorren asteartean irtengo da Arnaldo Otegi Logroñoko espetxetik, 6 urte eta 5 hilabete preso egin ostean. Irakurri berri dut Imanol Muruaren *Ekarri armak*, ETaren jardun armatuaren behin betiko amaieraren kronika. Urte batzuk lehenago idatzi zuen, 2006ko bake elkarrizketei buruzko *Loiolako (h)legiak* liburua. Ezaguna da bi prozesu hauetan Arnaldok izan duen paper erabakigarria.

Azken urteotan, aldaketa asko eman dira euskal politikagintzan. Nolabaiteko bertigua ere ematen du, atzera begira jarri eta gure gaztaroko gertaeren errepaso egiteak. Bereziki oroitzen ditut nerabezaroko (90eko hamarkadako) urte nahasiak. Kaleetan, tentsioa nabarmena zen. Ia eguneroko albiste ziren atentatuak, atxilotetak, manifestazioak, kale istiluak, torturak, mehatxuak...

Oraintsu egin dira Elgoibarren, bake eta bizikidetzat jardunal-

diak, udalbatza osatzen duten hiru talde politikoen babesarekin. Lehen jardunaldian, *Glencree* dokumentala ikusteko aukera izan genuen: izen bereko Irlandako hirian, alde bietako biktimek egin zituzte topaketen inguruko testigantza hunkigarria. Ondoren, Marixabel Lasa eta Edurne Brouard aritu ziren solasean.

Marixabeli, senarra hil zion ETak. Edurneri, aita GALEk. Ausera eta txalotzekoa iruditzen zait, biktima hauek eta beste askok egin duten hautua. Hala ere, biktima izan ala ez, elkarbizitzatuztion ardura da. Gatazkaren ondorioak, hor daude: gizartea polarizatuta dago eta zauriek zabalik jarraitzen dute. Sozializatutako sufrimendutik, poliki-poliki, elkarbizitzatuztion pasatzeko garaia da. Edurne Brouarden ideia batekin geratzen naiz: elkarbizitzan aurrera egin nahi badugu, ezin ditugu debate guztiak irabazteko planteatu. Zuk nola bizi duzu hau guztia, Andoitz?



ANDOITZ AGIRREGOMEZKORTA



“Gizartia polarizauta ez daguala uste dot. Zenbat dauka antzerkittik politikarixen jardunak?”

Festa haundixa izango da martitzenian, Abel. Merezittako ongiatorriza jasoko dau Arnaldok. Transatlantikua mugiaraztia zenbaittek delitu bezela saldu nahi izanak harriduria sortzen diti oindiok ere. Zalantzarik ez daukat zenbait eroso zeudela lehen.

Aspaldittik dabil gizartia politikarixen aurretik, urtietako abantailia daramala esango nuke. Aittatu ditzuzun adibidiak ikusi besterik ez dago. Badaude adibide duiñak politikagintzan ere, baina gehixenetan burua altzatzen dabanari lepua mozten diote. Bizitzarako ikasgai baliagarriak iruditzen jataz Marixabel Lasa edo Edurne Brouarden jokabidiak, adibide bi ipintziarren. Sufrimenduren goiñetik aurrera egitteko eta zubixak eraikitzeke balore haundixa bihar da. Urtiek aurrera egiñ ahala holako kasu gero eta gehixago izango diran ziurtzia daukat, izan ere denboria da

zaurixak saniatzeko botikarik onena.

Horregaittik gizartia polarizauta ez daguala uste dot. Albistegixak ikusita eta politikari batzuk entzunda irudi hori jaso laike, baina zenbat dauka antzerkittik politikari hórren jardunak? Eguneroko bizitzan ez dot holakorik sumatzen. Pentsamolde eta sentimendu askotako talde edo pertsonak gaude, noski. Baiña nere alabiaren ikasgelan neriaren ikuspegi antagonikua dauken beste guraso batzuk badaude, zer egin bihar dot? Eurekin harremanik ez izan? Edo lankidien artian ez al daude gai honi buruzko aburu oso ezberdinak? Leikiena da oindiok ere gai honi buruz inguru ireki baten berba egittia ohiko ez izatia, baiña elkarbizitzatuztion osatzeko gizarte heldua gerala iruditzen jata, nork bere ideiak defendau arren. Itsutzen ginttuan behe lainua saretzen dixela uste dot.

ANDER SORALUZE

Informatikaria



Alan Turing

kate: autoa bidaiatzeko, orrazia orrazteko, etab. baina, zer egiten dute ordenagailuek? Ba... eskatzen zaiena. Hori da ordenagailuan berezitasun handiena nire ustez, zer egin behar duten esan ahal zaiela.

kodifikatzen zituzten baina, aliatuek eginak egin, ez zuten lortzen ulertzerik. Turing buru zuen talde batek Enigmaren klabeak deszifratzeko prozesua eta makina diseinatu zituen eta, ondoren, eraiki. Horrek izugarritzko abantaila eman zien gerra irabazteko. Erabakiorra akaso.

1952. urtean, bere etxean izandako lapurreta baten ikerketan, Turingek homosexuala zela onartu zuen Poliziaren aurrean eta, garai hartan homosexualitatea legez kanpoko zenez Erresuma Batuan, kartzela ekiditearren *kastrazio kimikoa* aukeratu behar izan zuen.

Bi urte geroago, sagar pozoindu bat janda hil zen itxuraz (beste hainbat hipotesi badaude ere). 59 urte geroago, Isabel II.a erreginak bere delitua barkatu zion. Dena den, aurretik ere errekonozimendua jaso zuela dioenik ere bada. Inork ezagutzen al du zati bat falta zaion sagar bat (hasieran kolore biziz marraka margotua) irudi darabilen informatika enpresarik?

“Turingek, ordenagailurik existitzen ez zenean, konputazioa zer zen teorizatu zuen”

Gai hauek lantzen ari zela, bigarren mundu gerratea piztu zen eta, horrek Turingek ordura arte landutako teoriak praktikan jartzeko aukera paregabea eman zion. Garai hartan, alemaniarrek beraien mezuak Enigma izeneko makina batekin

Turing entzunda, gehienoi ez zaigu burura ezer gutxi etorriko, XX. mendeko pertsonaia oso garrantzitsu bat izan bazen ere. Zergatik? Ba, gehienbat, homosexuala zelako.

Turingen meritua handienetako bat, informatikaren ikuspuntutik behintzat, ordenagailurik existitzen ez zenean, konputazioa zer zen teorizatu izana da. Ordenagailuek nola funtzionatu zuten iragarri zuen, nolabait esatearren.

Gizakiok sortutako makina edo tresna guztiak helburu jakin eta zehatz bat dau-



ARGITARATZAILEA:



Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus
 Publizitatea: 943 743 704 - barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

BARRENEk bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENEk ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegia, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar
 1821-2021



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
 GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

► DESOBEDIENTZIAZ, AINARA LIBRE

Jarrai-Haika-Segi auzia salatzeko A-8 autopista mozteagaitik, martxoaren 2an goizeko 12tan Donostiako Epaitegira deitu gaituzten Asier Alberdi deustuar, Saioa Zerain gasteiztar, Aritz Azkona arrietar, Naroa Ariznabarreta eibartar eta Ainara Ladron elgoibartar gazteok zera adierazi nahi dugu:

2007an egindako bide mozketak, beste hainbat mobilizazioen arteko bat izan zen, Jarrai-Haika-Segi auzia salatzeko. Mobilizazio horrekin bi aldarrikapen nagusi genituen: euskal gazteriak militatzeko zuen eta duen eskubidea aldarrikatzea eta Segi terrorista deklarazioak

ez euskal gazterian eta euskal herriko askapen borrokan edukiko zituen ondorio latzak saltzea.

9 urte luze pasa dira ordudik, 9 urte luze hauetan Audientzia Nazionalera bajatu gaituzte, handik Donostiako epaitegira bideratu eta orotara hirugarren epaiketa dataren aurrean gaude. 9 urte ondoren fiskalak ez du eskaera egun bat ere jaitisi eta bakoitzari bi urte eta erdiko espetxe zigorra eskatzen digu, orotara 12 urteko kartzela zigorra.

Berriro ere epaiketa politiko baten aurrean gaude. Arrazoia argia da: disidentzia politiko kriminalizatuz askapen borrokaren kontrako oldarraldiarekin se-

gitu nahi dute. Baina nazkatuta gaude eta nahikoa dela esatera gatoz. Gure herriaren alde lanean jarraituko dugu, borrokak emango digulako horren maita dugun askatasuna.

Horregatik guztiagaitik, dei egiten diogu Euskal Herriari borrokan jarraitzeko eta egongo diren mobilizaioetan parte hartzeko. Martxoaren 2an, 19:30ean, denok Plaza Handira.

Gora Euskal gazteria, Gora Euskal Herria askatuta! Jo ta ke irabazi arte!

Libre Elgoibar



Jose Etxeberria Agote

"Ballibar"

2016ko otsailaren 22an hil zen, 94 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Pedro Maguregi Osoro

2016ko otsailaren 20an hil zen, 86 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



M^a Dolores Iriondo Igartua

2016ko otsailaren 24an hil zen, 81 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



Martitzenean Otegi aske gelditu ondoren, 'Arnaldo askatu, politika askatu' plataformak bere jarduna amaitutzat joko du

Martitzenean, Arnaldo Otegi kartzelatik irtendakoan, bere egitekoa amaituko dela iragarri du *Arnaldo askatu, politika askatu* herri plataformak. "Datorren asteartean, martxoak 1, aterako da Arnaldo espetxetik eta egun berean, 18:30ean agertuko da Elgoibarko Plaza Handian (Kalegoen), ia sei urte eta erdi espetxean egin ondoren. *Arnaldo askatu, politika askatu* plataformakideek honenbestez ematen diogu amaiera gure asmo nagusiarri eta eskerrek ematen dizkiogu gure ahaleginean bidelagun izan ditugun herritar guztiei"

"Adin, sektore eta ideia askotariko" elgoibartarrek sortu zuten plataforma 2010eko maiatzean, Elgoibarko politikari independentistaren askatasuna eskatzeko. Hiru helbururekin jaio zen plataforma: alderdikieretatik kanpo bakegintzan sakontzea, politikari aukera ematea eta Otegiaren senitartekoei hurbiltasuna adieraztea. Gogoeta eta aldarrikapena uztartuz, ekimen ugari antolatu ditu plataformak azken urteotan.

Antolatuko duen azken ekitaldia *Otegi Free* jaialdia izango da, martitzen arratsaldean. Kalegoen plazan,



Plataformako kideak bileran (Argazkia: Ibon Serrano)

18:30etik aurrera. Fermin Muguruza, Bad Sound System, La Basu, eta Aneguriak jarriko diote musika ekitaldiari eta, besteak beste, txalaparta, bertsolariak eta dantzariak ere izango dira. Arnaldo Otegi berba egingo duela ere aurreratu dute antolatzaileek.

Ekitaldiak beharrezko baimen guztiak dituela nabarmendu du plataformak. Carlos Urkijo Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak martitzenerako eta hurrengo astebururako antolatutako ongi-etorri ekitaldi guztiak debekatzeko eskatu dio Espainiako Auzitegi Nazionalako Fiskalzari, terrorismoa goratu daitekeelakoan.

Edizio hau ixterakoan, behintzat, ez da inolako ez da debekurik ezarri. Auzitegi Nazionalako fiskaltzak Urkijori eskatu dio Estatuko Segurtasun Indarren bidez ekitaldi guztiak gertutik zaintzeko.

Autobusa kartzelara

Martitzen goizean askatuko dute Otegi, lehen orduan. Elgoibartik autobusa jarri dute Otegiaren bila joateko. Autobusa 06:00etan irtengo da Txankakuatik eta txartelak Jai Alai tabernan eskuratu daitezke. Espainiako Gobernuaren Errioxako ordezkariak tramitatua du kartzela aurreko kontzentrazio eskaera.

Eguaztenean hasiko da Ainara Ladron eta beste lau gazteren aurkako epaiketa, 2007an bide mozketa batean parte hartzeagatik



Epaitegietan atzerapen eta tramite ugari gertatu ondoren, martxoaren 2an hasiko da Ainara Ladron eta beste lau gazte independentisten aurkako epaiketa Donostiako Lurralde Auzitegian. 2007an bide mozketa batean parte hartu zuten Segi talde terrorista izendatzearen aurka protesta egin ez eta euskal gazteriaren militatzeko eskubidea aldarrikatzeko. Fiskaltzak bi urte eta erdiko kartzela zigorra eskatzen du.

Martitzenerako, Libre Elgoibar taldeak epaiketaren aurkako kontzentrazioan parte hartzeko deialdia egin du Kalegoen Plazan, 19:30ean.

14 milioi euroko aurrekontua izango du Elgoibarko Udalak 2016 honetarako



Aita Agirrearen proiektuaren erredakzioa sartu dute 2016ko aurrekontuan.

Urte honetan 13.999.822 euroko aurrekontua izango du Elgoibarko Udalak, 2016ko jardunerako. Atzo (eguna) arratsaldean egitekoa zen Osoko Bilkurak onartzekoa zen aurrekontu hori. 2016ko hasierako aurrekontua 2015eko hasierako aurrekontua baino %2,5 handiagoa da (13.682.562 eurokoa izan zen).

2015eko behin-betiko aurrekontua 15.320.512 eurokoa izan zen azkenean. Aktibo finantzarioen igoerak ekarri zuen iazko aurrekontuaren sorreren igoera handiena. Izan ere, Elgoibarko Udalak gerakina (aurreztutakoa) erabili zuen hainbat inbertsio egin ahal izateko.

Elgoibarko Udalak ez du 2016ko ekitaldi honetarako aparteko inbertsio handirik aurreikusi. Era guztietara, 200.000 euro bideratuko ditu Aita Agirreko eraikina berritzeko proiektuentzat. Aurten erredaktatuko den proiektu horrek datozen urteotako aurrekontuetan eragin handia izango du. Lanak datorren urtean esleitzea espero da. Lehen aurreikuspenen arabera, 2,8 milioi euroko kostua izango du eraikina berritzeak.

1,6 milioi euroko inbertsioak

2016ko aurrekontuan 1,6 milioi euroko inbertsioak aurreikusi ditu Udala-Gobernuak. Besteak beste, landa lurretan lanak egiteko 200.000 euro bideratuko ditu, Olasoko pasarela ordaintzeko 300.000 euro, kirol gradentzat 100.000, Trenbide Kalea egokitzeko 170.000, hiri-altzarienezako 50.000 eta Industria poligonoetarako 80.000.

Udan Saharako umeak etxean hartzeko deia egin dute

Martxan da *Oporrak bakean 2016* programa. Tindufeko errefuxiatu kanpamenduetan bizi diren haurrak etxean uztailean eta abuztuan, hartzeko prest dauden familiak behar ditu Eibar-Sahara elkarteak. "Desertuan bizi diren umeentzat funtsezkoa da udako beroaldi itogarriari ihes egin, gure artera etorri eta mediku azterketak egitea. Benetan garrantzitsua da eurentzat bi hilabetez ondo jan eta indartzea", azaldu du elkarteak.

10 eta 12 urte bitarteko haurrak saharar errefuxiatu kanpamentuetatik atera eta bide batez basamortuan udako bi hilabete horietan jasaten duten temperatura altuetatik babestea da helburua. Interesatuek edurneu3@hotmail.com helbidera idatz dezakete. Informazio osoagoa interneteko helbide honetan aurkitu daiteke: oporrabakean.jimdo.com webgunean.

Aste Santuan nagusientzako egonaldiak egoitzetan

Martxoaren 2ra arte eman dezakete izena Aste Santuko oporraldia egoitzetan pasatzeko asmoa duten jubilatuek. Elgoibarko Udalaren arabera, egun horretatik aurrera jasotzen diren eskaerak libre dauden plazen arabera beteko dira. Nolanahi ere, gai honi buruzko informazio gehiago lortu nahi dutenak Elgoibarko Udalaren Gizarte Ongizate Sailarekin harremanetan jar daitezke. Horretarako, Kalegoen plazan dauden bulegoetara bertaratu, 943 741 008 telefono zenbakira deitu, edo bestela, ongizatea@elgoibar.eus helbide elektronikora mezu bat bidali ahal izango dute.



Luis Arakistain Arrieta

2016ko otsailaren 24an hil zen, 69 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



“Sexualitateari buruz hitz egiterakoan ez dago naturaltasunik”

► EIDER GOIBURU MORENO SEXOLOGOA

Sexologoa eta berdintasun teknikaria da Eider Goiburu Moreno (Orio, 1980). Zer ikasi erabakitzerakoan argi zuen jendearekin lan egin nahi zuela eta psikologia sozialerako bidea hartu zuen; hau da, taldeekin lan egitera eta batez ere prebentzio ikuspegitik. Ikasketak amaitzean aukera izan zuen sexualitatearen inguruan lanean ari zen jendearekin praktikak egiteko eta horrela sartu zen sexologiaren munduan. Horrek ekarri du oraingoan ere Elgoibarrrera, Ludotekara, sexualitatearen inguruan haur eta gaztetxoek dituzten zalantzak argitzera –urrez Biluzik zerbitzuan eta ikastetxeetan egon izan da–.

- IRATI AGIRREAZALDEGI -

♦ Askotariko jendearekin lantzen duzu sexualitatearen gaia. Zenbat eta gazteagoak izan zailagoa al da?

Batik bat DBH eta Batxilergoko gaztetxoekin aritzen naiz eta beste eragile batzuekin ere: gurasoak, irakasleak, hezitzaileak... Ludotekakoak gazteagoak izan arren, ez da zailagoa, ikuspuntua ezberdina da. Ezberdina baita nola bizi den sexualitatea 11 urterekin, 15ekin edo 17rekin. Beraz, dinamikak eta baliabideak egokitu behar dira garapen momentura. Haur eta gaztetxoak sexualitatearen inguruko galdera asko egiten ari dira eta Ludotekako hezitzaileen ardura ez da kontsulta zehatzak argitzea, beraz, tailerra egin dugu. Emakumeen eta gizonen arteko harremanekin, bikote harreman ereduekin... arduratuta daude eta interesak jakinda, zalantzak landu ditugu. Batetik daude umeez edo gazteek egiten dituzten galdera konkretuak eta beste bat helduok galdera horietatik ateratzen ditugun ideiak. Horren inguruan egin behar dugu lan.

♦ Haur eta gazteei sexuaren inguruko argibideak ematen dizkiezu. Zein dira beraien kezka nagusiak sexualitatean?



Arg.: UEU

Gauza bat da zein diren beraien kezka nagusiak eta bestea esaten dutena. Komunikabideetatik eta oro har gizartetik jasotzen ari dira, eta mezu hori ia beti dago lotuta koito harremanetara eta bikote harreman heterosexualara. Beraz, askotan horri buruz galdetzen dute hori ez zuten dutelako, baina ez dira beraien momentuko bizipenak. 11 urteko neska-mutilak batik bat beraien gorputzeko aldaketak bizitzen, asimilatzen eta edertasun ereduarekin konparatzen ari dira.

Askotan ikusten dutenaren arabera galdetzen dute. *Mujeres, hombres y viceversa* telebista saioa ikusten badute hor ateratzen diren edukien inguruan galdezen dute. Baina gure asmoa ez da hori lantzea. Beste momentu bat bizitzen ari dira, beste harreman eta interes batzuk dauzkate. Helburua da garrantzia kentzea gizartetik bideratzen den horri, eta ikusaraztea beraiek zer bizitzen ari diren garai hortan: nesken eta mutilen arteko lehen harremanak, jolasak, ligea eta al-daketa bio-fisiologikoak

Dena dela, zaila da guri egiten dizkiguten galderarik ohikoenak aukeratzea. Neskek eta mutilek egiten dituzten kontsultak edo galderak ezberdinak dira. Neskenak gehiago bideratuta daude harremanetara, sentimenduetara eta plazera nola lortu jakitera. Mutilak, ikastetxeetatik kanpo gaudenean, kontsultak egiteko beste gune batzuetan, askoz gutxiago gerturatzen dira eta etortzen direnean gauza fisikoei buruz galdetzen dute: gorputza, zakila, erantzun sexuala...

♦ Sexologiari buruz daukaten informazioa zenbateraino da egokia?

Informazio pila bat dago 24 orduz, guztion eskura eta leku guztietan eta ezin da mugatu. Beraz, kontua ez da informazio gehiago ematea baizik eta esku artean dutena eta iturriak ikustea, beraien azterketa kritikoa egitea eta baliabideak ematea erreal eta egokia zer diren eta zer ez ikusteko, baita gauza bakoitzaren ondorioak jakiteko ere.

♦ Eta jasotako informazioa ondo bideratzen al dute praktika sexuala?

Informazioaz gain beti lantzen ditugu

jarrerak eta jokabideak. Hezkuntza beharrezkoa da, baina gero jarrera ezkorra izanez gero... Esaterako, nik nire buruarekin plazera nola lortu baldin badakit, baina neska baldin banaiz eta ideologia matxista badut oso zaila izango da nire buruan plazera aurkitzea.

"Mutilak gutxiago gerturatzen dira kontsultak egitera eta etortzen direnean gauza fisikoei buruz galdetzen dute"

♦ Haur eta gazteak noiz hasten dira sexuaren inguruko kezka azaltzen?

Sexualitatearen inguruko galderak beti dauzkate, baina adin bakoitzean era ezberdinean bizi da sexua. Esaterako, hiru urterekin hasten dira neskek eta mutilak beraien artean genitalai begira eta horzalanza asko sortzen dira. Bestalde, ezberdina da helduen jarrera umeekiko sexualitateari buruzko galderak egiten hasten direnean. Hor ateratzen dira helduen beldur, lotsa, erruduntasuna... sentimendu guztiak.

Profesionalok ohituta gaude umeekin sexuaz hitz egitera eta umeek ikusten dutenean hitz egiteko espazio libre bat daukatela aprobetxatu egiten dute.

♦ Gurasoekin ez dute berdin jokatzeko?

Oro har askoz ere zailagoa da, baina hori gurasoen arabera da, familia bakoitzean sexualitatea era ezberdinean bizi da. Etxe batean gaia oso tabua bada gurasoekin hitz egitea oso zaila da, eta beste batean jarrera irekiagoa baldin badaukate errazagoa da. Dena dela, nerabearen gazte gehienentzat da zaila gurasoekin sexualitateaz hitz egitea. Izan ere, beraien askotan ez dira ideia abstraktuez

hitz egiten ari, baizik eta beraien bizipenez. Beraz, lagunekin hitz egiteko aprobetxatzen dute.

♦ Nagusi askok koitora mugatzen du sexologiari buruzko ideia, ezta?

Muga hori adin guztietan dago. Gaur egun, sexualitateari buruz hitz egiteko askatasun gehiago dagoela esaten den arren, ez da errealitatea. Sexualitateaz hitz egiten denean oro har koito harremanez hitz egiten jarraitzen dugu. Beraz, gazteek, nerabeek edo umeek beste pertsonekin harremanak izaten, sexu erlazioak izaten hasten direnean. Hori da adierazten dutena, koitoari buruzko galdera asko dauzkate. Beraz, saiatzeko naiz kontua zabalagoa dela azaltzen

♦ Gainera mito asko dago sexualitatearen inguruan. Hori sumatzen duzu?

Sexualitatean ere gaiaren arabera koito dira mitoak. Adibidez, prebentzioari dagokionez, koito-etena edo *marcha atras* mito hori dago. Hilekoari dagokionez hainbatek oraindik uste du hilekoa urarekin moztu egiten dela...

Horiek argitzeko, lan egiterakoan, metodologia partehartzailea erabiltzen dugu. Hainbat dinamika eskaintzen ditugu beraien hausnarketak, galderak, adierazpenak... egin ahal izateko eta hortik abiatuta gaia bideratzen dugu.

♦ Naturaltasunez jokatzeko al da sexuaz hitz egiterakoan?

Ez dago naturaltasunik gehienetan, jarraitzen dugu lotsa, erruduntasun... sentimenduak izaten eta hori transmititu egiten da gurasoengandik umeengana. Horregatik, 11-12 urtetik aurrera gai askotaz hitz egiteko lotsa handia izaten dute bai gurasoek eta baita umeek ere.

♦ Euskaraz sexualitateari buruz hitz egiteko nahikoa hitz badugu?

Sexualitateaz askorik hitz egiten ez denez, hiztegia bera nahiko mugatua da, baina euskaraz egon badago. Hiztegia sortzen joaten da erabili ahal, baina ez da ohikoa, ez da zabala eta hori da sexualitateari buruz hitz egiteko dauzkagun zailtasunen adierazle bat.

Txikibarren

Zergatik intsektuak beti dira hain txikiak?



Aroa Saez
(Elgoibar, 7 urte)

"Zitada handiak ez egiteko; moskito handiek zitada handiak egiten dituzte eta ni zitatu izan naute. Badaude zitatzten ez duten intsektuak ere, baina txikiak direnez, niri gehiago gustatzen zaizkit. Niri amona mantangorriak gustatzen zaizkit, baita erleen koloreak ere".

Elur Aiarza
(Elgoibar, 8 urte)

"Horrela jaio direlako. Belarra jaten dute, baina batzuk ez dira handitzen eta horiek ez dira ikusten. Zorro batzuk badaude zitatzuz gero gaixotu egin gaitzaketanak eta horregatik dira txikiak ezkutuan ibili ahal izateko".



Leire Eizagirre
(Elgoibar, 7 urte)

"Ez dakit zer jaten duten, baina guxiago jaten dutelako. Niri ez zaizkit intsektuak gustatzen nazka ematen didatelako, hala ere ez ditut ikusten. Lagun batzuk ibiltzen dira intsektuak harrapatzen, inurriak-eta, nahiz eta berez ez den jolasa horrela ibiltzea. Ni ez naiz ibiltzen".



Kaiet Lizundia
(Elgoibar, 7 urte)

"Ni handia naizenez txiki ikusten ditut. Gainera gutxi jaten dute, ogi apurra-edo, eta nik batzuetan botatzen dizkiet, baina hala ere ez dira hazten. Niri moskitoak gustatzen zaizkit gehien, baina nik ez dut beraiekin jolasten, ikusi bakarrik".



Nora Parada
(Elgoibar, 7 urte)

"Ez dutelako asko jaten. Erleek ezta egiten dute eta horretarako loreak jaten dituzte, baina asko ez. Niri erleak pixka bat gustatzen zaizkit, baina gehiago euliak. Intsektuak harrapatu nahian ibiltzen naiz lagunekin, baina ez dugu lortzen".



Gorka Agirre
(Elgoibar, 7 urte)

Belar artean ixiltasuna gordetzeko eta ezkutuan ibiltzeko. Hala ere, hegan egiten dutenean hain txikiak izan arren ikusi egiten ditugu. Niri ez zaizkit gustatzen intsektuak askotan zizta egiten didatelako eta granoak ateratzen zaizkidalako, beraz, azkura izaten dut.



Enara Gisasola (biloba)



Luisa Gutierrez (amama)

Oso maitekorra naiz.

Zein da zure bertuterik onena?

Umeei eusteko indar handia dut. Bost biloba dauzkat eta nola ez bestela.

Amamarekin egoteak umore onez jartzen nau.

Zerk jartzen zaitu umore oneko?

Bilobekin egoteak oso pozik jartzen nau denbora asko eskaini behar badiet ere.

Iluntasunari beldur handia diot.

Zeri diozu beldurra?

Senideak oporretara kanpora joaten direnean beldurrez eta kezkatuta egoten naiz.

Errioxara joatea. Han egun guztia kalean pasatzen dugu jolasean.

Zer da asteburuetan egitea gehien gustatzen zaizuna?

Atsedean hartzea inolako ardurarik gabe eta lasai egotea.

Ariana Granderen 'Bang Bang' abestia gustatzen zait. Ingelesez da kantua.

Zein da zure abestirik gogokoena?

Nino Bravoren 'Libre' nuen gustuko, baina orain galdu dut musika zaletasuna.

Erosoen txandalarekin egoten naiz, baina badituz praka beltz batzuk eta amak erositako kamiseta bat dotoreago janzteko gustatzen zaizkidanak.

Zein da gustukoena duzun arropa?

Arropa kontuan biloba bezalakoa naiz, txandala gustuko dut. Bestela trajeren bat txukun janzteko.

Pufff... gauza asko, baina bat aukeratzekotan patin berri batzuk.

Zer oparituko zenioke zure buruari?

Ez dut kapritxo asko izaten. Opariak besteek egiten dizkirate ez nik neure buruari.

Entsalada errusiarra. Bestela suarekin erreko naizen beldurra izaten dut.

Zein da ondoen prestatzen duzun janaria?

Ogi-mamiak. Biloba guztiei gustatzen zaizkie, eta zapatuan elkartuko gara jateko.





“Patagoniak toki pila bat

▶ EÑAUT IZAGIRRE GLAZIOLOGOA

Eñaut Izagirrek (Elgoibar, 1990) eskuartean darabilen proiektua oso zabala da: ikerketa zientifikoari lotuta dago, baina abenturatik ere asko du. Datozen asteetan ekingo dio In-cognita Patagonia espedizioari. Patagoniako eta beharbada munduko lekurik apartatue-netako bateraino iritsi nahi du bere taldekideekin batera. Han hilabete inguru egin ondoren, inguruko mapak kalitate onean osatu eta glaziarren egoerari buruzko dibulgazio zientifi-koak egin beharko dituzte. Eskalada munduko aldizkari espezializatuetan zerbait argita-ratzeko esperantza ere badu Izagirrek.

- OIER NARBAIZA -

◆ Zergatik Patagonia?

Han bizi izan naiz bi urte eta erdian eta beste espedizio kideek ere ezaguna dute. Ibai Rico Ushuaian egon zen urtebe-tez bizitzen eta Evan Miles Txile hegoal-dean ere espedizio pare bat egindakoa da. Ezagutzen genuen eskualdea eta hasi ginen begiratzeko ezaguna ez zen eremu-rik oraindik gelditzen ote zen. Patagoniak toki pila bat dauzka oraindik ezagutzeke. Cloue izeneko izotz-zelaia aurkitu genuen. Hoste uharte honetan, justu hegoan, Ushuaia eta Puerto Williamstik behera, ez dago herririk. Uhartetxo bat da. 200 kilo-metro koadrotik gorako izotz-zelaia dago eta hara joan nahi izan genuen. Ez ze-goen inongo espedizioen berririk. Satelite bidezko irudiekin antolatuta genuen.

◆ National Geographic-ek zuen proiektua diruz lagundu du, ezta?

Alde batetik lehenengo Azpeitiko Udak eman zigun Joxe Takolo beka, 3.000 eurokoa, mendizaletasunari lotutakoa. Gero, niri eman zidaten National Geographic-en esploratzaile gazteenen beka, *Young Explorer*. Diru kopuru interesgarri bat dugu horrela eta gainera instituzio garrantzitsu baten babesak. Beste beka batzuk ere jaso ditugu, Erresuma Batuko mendizaletasun federazioak emandakoa. Esplorazio zientifikoari lotutako elkarte baten beste beka baten zain gaude. Gutxi

“Argazkiak eta bideoak grabatzeaz gain, fiordoetatik glaziarren egoera aztertu beharko dut”

gorabehera, aurrekontuaren %70 babes-tuta dugu. Martxan jarri genuen crowdfunding kanpainan herritar askok eman dizkigute babes txikiak, mikrobabesak. Haieki eskerrak eman nahi dizkiegu. Material aldetik; Marmot erropa markak babesten gaitu, eta aerolinea batek, Patagonian hegazkin txiki batzuk erabil-tzeko.

◆ Crowdfunding kanpaina itxi duzue?

Oraindik zabalik dago, baina ixteko asmotan gabilta. 3.000 euroko muga jarri genuen eta 2.500era heldu gara. Agian ez gara iritsiko baina ez da hil ala bizikoa. Asmoa zen %70 horretatik igotzea, eta beka hori emango baligute egongo ginatke aurrekontuaren %95 in-guruan.

◆ Norbaitek lagundu nahi balizue?

Pitxintxun daude oraindik kilome-



dauzka oraindik ezagutzeke”

troak. Saiatuko gara zerbait ematen bueltan.

◆ Zein da zuen plana?

Astelehenean ailegatuko naiz Santiagora. Gero beste hegazkin bat hartuko dut Punta Arenas hirira –Txilen bertan hau ere, baina 3,5 orduko hegaldia–. Han logistikoki janari kontuak eta materiala antolatu behar dira, eta Puerto Williamsera abiatuko naiz martxoaren 4an. Ibai eta Evan, zuzenean etorriko dira hara, eta belauntzi batean 2-3 eguneko nabigazioa egingo dugu mendebalderantz, Beagle kanalaren hego kanaletik, eta ailegatuko gara Hoste uharte honen mendebaldeko muturrera. Tokirik hezeena, haizeak gehien jotzen duen tokia, umela, euria, elurra... Handik Ibai eta Evan abiatuko dira izotz-zelaiaren gora kordada bat osatuta, gailurrak eskalatzeko asmoz eta travesia hau osatzeko asmoz. Bitartean, kamera lanetan ibiliko naizenez, beraiekin zatitxo bat egin, gero berriz buelta, eta belauntzia berriz hartuta fiordoetan joango gara glaziarren gaur egungo egoerara, antzinako kokapenak neurtzeko lan zientifikoa egitera.

◆ Zer distantzia egingo du espedizioak?

Izotz eremua zeharkatzea 30-35 bat kilometro izango dira. Belauntziz abiatuko garen puntura arte 90 bat milia nautiko.

◆ Distantzia horiek baldintza horietan handiak izango dira...

“Han urruntasunak eta baldintza meteorologikoek emango digute zailtasuna”

Izotz-zelaiak elur eta izotz azalera zabalak dira, eta goi-eremuko lautada moduko hauetatik glaziar ezberdinak jaisten dira beherantz. Lautada izoztu hauetan menditxoan tontorrek agerian gelditzen dira, glaziarrez inguratuta. Horra abiatzeko, trineoen laguntza izan beharko dute beraiek. Batez ere, itsasotik altuera hartzea kostatzen da. Kondizioak ez dira errazak izaten: oso baso itxiak, hezeak eta baldintza meteorologikoak ez dira errazak. Patagonian zaude, hego-mendebaldeko mutur batean, eta haize guztiak hortik sartzen dira.

◆ Beraz, tontorrek kartografiatzen jardungo duzue.

Hori da, eskalatu eta neurtu. Kartografia hobetu nahi dugu. Badaude mapa zahar batzuk armadak egindakoak, baina ez dago gaur egungo mapa topografiko onik ez eta inguruko toponimia zehaztuta. Dena satellite bidez neurtuta dago. Mapa bat osatu nahi dugu, kalitate onekoa.

◆ Zuk taldea koordinatuko duzu, ezta?

Arlo zientifikoaren buru izango naiz, eta kamerarekin arituko naiz batez ere. Argazki eta bideo gehienak ere nire kontu joango dira. Fiordoetatik glaziarren egoera aztertu beharko dut. Argi dut Evanek eta Ibaiek duten eskalatzeko teknika ez daukadala eta zati horiek beraiek egin beharko dituzte. Horrela banatu dugu. Ontziaren laguntzarekin goazen heinean, beraiekin ere kontaktua izango dugu.

◆ Arrisku maila handiko espedizioa da?

Himalayan altuera dago eta Patagoniako Cerro Torren teknikoki eskalada zailtasunak daude. Baina hemen urruntasunak eta baldintza meteorologikoek emango digute zailtasuna. Urrun egongo gara eta edozein tipotako problema izanez gero, guk bakarrik moldatu beharko dugu.

◆ Hirurak bakarrik egongo zarete ala?

Eta beste bi ontzian. Bosteko ekipo bat egingo dugu. Haietako bosteko ekipo bat egingo dugu. Haietako bosteko ekipo bat egingo dugu. Haietako bosteko ekipo bat egingo dugu. Haietako bosteko ekipo bat egingo dugu. Haietako bosteko ekipo bat egingo dugu.

◆ Zer sentitzen da horralako lekuetan?

Itsasoan zaudenean edo mendi garaietan ezagutu beharreko tokietan egoteak norberarentzat garrantzia du eta gainera gizarteari ezagutarazteko aukerak ere badu beste balio erantsi bat. Eta zientzia mailan aportatu badezakezu, are gehiago.

'Gurasoentzako Tertuliak' egitasmoa antolatu dute euskara ikasten ari diren gurasoek erraztasuna lortzeko

Euskara ikasten ari diren eta seme-alabekin euskaraz gehiago berba egin nahi duten gurasoentzat, *Gurasoentzako Tertuliak* izeneko egitasmoa jarri nahi dute abian. Guraso horiek euskara praktikan jartzeko beharra sumatuz gero, beraiei laguntzea da helburu nagusia.

Bidegileak, euskararen bidea egiten dihartutenak, egunerokoan euskaraz egiten duten Bidelagunekin elkartu eta tertulian jardungo dira eta azken horiek euskararen bidea egiten lagunduz.

Horrela, berba eginez, euskaraz ari zeko erraztasuna lortu eta lotsa kenduko dutela uste dute antolatzaileek. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleen Topaguneak antolatu du egitasmoa, ikastetxeetako guraso taldeekin elkarlanean.

Astean behin ordubetez

Hiru edo lau laguneko taldeetan gurtuko gaien inguruan giro atseginean ari-



Kanpaina promozionatzeko grabazioaren irudia.

tuko dira berbetan: euskara, kultura, Euskal Herria, politika, gizartea, zinea, kirolak, bestelako zaletasunak... Astean behin egingo dituzte ordubeteko berbetaldiak, taldekideek erabakitzen duten lekuan eta orduan.

Elgoibarko Izarrak antolatu du egitasmoa, ikastetxeetako guraso taldeekin el-

karlanean eta jakinarazi dute izena emateko azken eguna martxoaren 11 dela eta horretarako zein informazioa jasotzeko honako bideak daudela: orria beteta www.elgoibarkoizarra.eus webgunean; 943 741 626 telefono zenbakira deituta; edo Elgoibarko Izarraren bulegoan (Ubitarte 4, behea).

Lorea Agirrek ahalduntzeari buruzko ideia azaldu zuen eguaztenean

Bagara nor mezuzaren triapak azaldu zituen Lorea Agirre kazetari eta antropologoak eguaztenean 30 lagunengana aurrean emandako hitzaldian. Euskalheraldun izan zen AEK-k Lorea Agirrerri azken Korrikarako mezua idazteko jarri zion gaia, eta manifestu politikoa idatzi zuen iturri askotatik edan ondoren. Elgoibarko Izarrak antolatu du hitzaldia. Euskalgintzak kontuan hartzeko ideia asko dago manifestuan.



Andoaingo piano jaialdian hartu dute parte 35 elgoibartarrek

Asteburuan jokatu da musika eskolen artean entzute handia duen Andoaingo Piano Jaialdia Bastero kulturagunean. Guztira, 5 eta 18 urte bitarteko 805 lagunek hartu dute parte, tartean Inazio Bereziartua Musika Eskolako 35 ordezkari. Parte hartu duten guztientzat sari bana egon da eta Elgoibarko piano jotzaileek urrezko 10 domina, zilarrezko 19 eta brontzezko 6 eskuratu dituzte.



Udaberriko Txokoak eta Zarautzen egonaldia Atxutxiamaikaren eskutik



Atxutxiamaika aisialdi taldeak prest du udaberriko eskaintza. Bi eta hamabi urte bitarteko umeek Udaberriko Txokoetan parte hartu ahal izango dute, martxoaren 21etik apirilaren 1era. Elizako arkupeetan elkartuko dira, eta 09:00etatik 13:00etara bitartean arituko dira txokoetan. Hala eskatzen dutenez zaintza zerbitzua ere egongo da 07:30etik 09:00etara. 50 euro ordaindu beharko dira eta 45 euro Elgoibarko Izarrako bazkideek. Plazak mugatuak direla ohartarazi dute aisialdi taldeak.

Bestalde, L.H.-ko 3. eta 6. maila arteko gaztetxoentzat lau eguneko egonaldia izango da Zarautzen, martxoaren 29tik apirilaren 1era. Mendi irteerak eta surf ikastaroa egingo dituzte, besteak beste. 100 euro ordaindu behar dira (90 euro Elgoibarko Izarrako bazkideek). Elkarteko bulegoan, Interneteko formularioa beteta, telefonoz (943 741 626) edo e-posta bidez (aisialdia@elgoibarkoizarra.eus) eman daiteke izena martxoaren 4ra bitartean.

Gaztelekuan ere izango da udaberriko eskaintza. Martxoaren 21etik 28ra itxita egongo bada ere martxoaren 29an futbolin txapelketa egingo dute; martxoaren 30etik apirilaren 1era hiru eguneko egonaldia Iruñean. Martxoaren 13a da 55€ ordainduta Gaztelekuan izena emateko azken eguna. Apirilako argazki rallya, gaubela eta zine-foruma iragarri dituzte.

Zapatuan hasiko dira Aingeru Guardako jaiak Mendaron

Bihar, zapatua, otsailak 27, kanpaiek iragarriko dute Mendaroko Aingeru Guardako jaien hasiera 12:00etan eta martxoaren 1ean bi meza izango dira 08:00etan eta 11:00etan. Ekitaldi nagusiak, ordea, martxoaren 6an egingo dituzte 12:00etako meza nagusiaren ondoren, trikitalariak, bertsolariak eta herri kirolak izango dira eta 14:30ean bertso-bazkaria Aizpen Iker Zubeldia eta Aitor Sarriegirekin. Bazkaritarako Ormolan edo Txirristakan eman behar da izena otsailaren 28a baino lehen.

Bizi-Poza txarangarentzat logotipo lehiaketa

Mendaroko Bizi-Poza txarangak 25 urte beteko ditu aurten eta urtemuga maiztaren 14an ospatzekoak dira. Urteurrenaren aitzakian, logotipo lehiaketa antolatu dute. Logotipoek kolore bakarra izatea da jarritako baldintza. Martxoaren 30a da lanak bidaltzeko azken eguna. Irabazleak 100 euro jasoko ditu. Bestalde, urteurrenaren harira, txarangaren argazkiak jasotzen ere ari da Bizi-Poza eta txarangaren argazkiak dituen jendeari euren eskura jartzeko eskaria egin diete. Logotipoak eta argazkiak helbide honetara bidali behar dira: bizipozatxaranga@hotmail.com.

Martxoan ez da izango Kale Kantarien saiorik

Zapatuan, otsailaren 27an, feria egunetan ohikoa duten moduan, Kale Kantariak abestiz jantziko dituzte Elgoibarko kaleak. Baina jakinarazi nahi dute martxoan ez dutela saiorik eskainiko. Martxoaren etenaren ondoren, apirilko azken zapatuan irtengo dira berriz 12:00etan Kalebarren plazatik.

Film laburren bilduma beldurrezko film zikloan

Gaur, barixakua, otsaileko beldurrezko filmen zikloko azken saioa izango da Sutegixa gaztetxean. *Euskal Harriaren ABDak* filma eskainiko dute 22:30ean hasita eta proiektuan parte hartu duen kide batek azalpenak emango ditu. Euskal Herriko 26 zuzendarik egindako beldur, zientzia-fikzio eta fantasiako laburmetraiez osatutako film kolektiboa da. Euskal alfabetoko 26 hizkietako batetatik abiatuta bakoitzak film bat egin du. Laburrak euskaraz grabatuta, euskal elementuetan oinarrituta eta erabat Euskal Herrian ekoiztuta daude. Askotariko gaiak landu dituzte egileek, besteak beste: heriotza, feminismoa, teknologia, jokoa, mitologia pertsonaiak, festa, misterioa...

“Aire libreko pista denboraldia lehiatzea da nire helburu nagusia”

► **Martin Hernandez Beitia** ANTIXITIKARIA

Kadete mailako Espainiako kros txapelketan 16. postua eskuratuta itzuli da Burgostik Martin Hernandez Beitia, egungo Euskadiko txapeladuna. Martxoaren 12an Oviedon jokatu den pista estaliko Espainiako Atletismo Txapelketa izango da bere hurrengo erronka, baina aire libreko denboraldia du helburu nagusi.

- ASIER ORBEA -



♦ Espainiako Kros txapelketan hartu duzu parte Burgosen. Zer moduz joan da?

Uste eta nahi baino okerrago, egin nuen 16. postua baino aurrerago sailkatzeko esperantzak nituen-eta. Beharbada, nire buruari gehiegi eskatzea kalterako izan zen, aurreko egunean ohi baino urduriago egon bainintzen. Nire taktika argi nuen arren, —ezagutzen ditudan lau zapa-bost atletak jarritako eritmoari eustea eta azken kilometroan eraso jotzea—, berehala konturatu nintzen oraingoan ezin izango niela jarraitu. Lehen kilometroetan profesionalen batez bestekoak egin zituzten, barren! Kilometroa hiru minutu eta hamar segundoan nagusiek ere ez dute egiten. Soriako Hugo de Miguelek irabazi zuen lasterketa.

♦ Domekakoa alde batera lagata, ez zaude kexatzeko moduan. Egin dituzun sei lasterketatik lau irabazi dituzu.

Halaxe da bai. Kros denboraldia oso ona izan da niretzat, aurreko urteko postuak eta, batez ere, denborak hobetu ditudalako. Abantzua badago, ni pozik. Eskarmentu gehiago ere badut orain eta lehiakorragoa izaten ikasi dut, besteak beste, lasterketak irakurtzerako orduan. Aurkarietan gehiago erreparatzen dut

orain, ia arnasestuka dabiltzan, dituzten ahulgune eta indarguneak... Era berean, ari naiz ikasten nire indarrak neurtzen.

♦ Nork lagundu dizu hobekuntza horietan?

Aitak, zalantzarik gabe. Bera dut entrenatzaile. Lagunen, familiakoen eta Mintxeta atletismo taldekoen laguntza garrantzitsua da oso, baina aitak gidatu nau atletismoan.

♦ Zenbatean behin entrenatzen zara?

Astean lau bider. Asko entrenatu behar da, baina pasatu gabe. Espainiako txapelketetan aurkari izaten ditudan lagunak harritu egiten dira lau egunean entrenatzen naizela esaten didanean. Euretako batzuek astean bost edo sei egunetan ere egiten dituzte entrenamenduak. Entrenamendu gogorrak gainera. Kadete mailan gaude, ordea, eta lasaiago ibili behar dela uste dut.

Bestela, jubenil mailara ailegatzeko erretzeko arriskua dago. Kadetetan sei egunez entrenatuz gero, asteko egun guztietan entrenatu behar al dugu ba jubeniletan! Atsedena entrenamenduko parte garrantzitsua da.

♦ Zein dira denboraldi honetarako dituzun erronkak?

Kros denboraldia amaitu eta gero, pista estaliko Espainiako txapelketan hartuko dut parte martxoaren 12an, Oviedon. Hiru probatan parte hartzeko gutxieneko markak ditut (300, 600 eta 1.000 metro). Seguruenez, 600 metroko proban bakarrik hartuko dut parte, hiruretan parte hartu eta maila ona ematea oso zaila baita. Dena dela, denboraldiko nire helburu nagusia aire libreko pista denboraldia da, udan. Aurten Granollersen jokatu da Espainiako txapelketa.

Ehun lagun inguruk hartu zuten parte Lasturko Arbil mendiko irteeran




Eguraldi eguzkitsua lagun, Lasturko Arbil mediak eskaintzen duen ikuspegiak gozatzeko aukera izan zuten 54 umek eta beste horrenbeste gurasok, joan den domekan. Trenz joan ziren Debaraino eta handik, kanaleko bidea jarraituz, Lasturko haranean sartu ziren. Arbil mendira igo ostean, Arriola aldetik Debara itzuli ziren berriz. Morkaiko mendi taldeak hilean behin antolatzen ditu ume eta gurasoentzako mendi irteerak Elgoibar Ikastola eta Herri Eskolarekin elkarlanean. Hurrengo irteera martxoaren 13an izango da, Aloña mendira.

Aste Santuko Kirol Kanpusa prest

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak aurten ere, zortzigarren urtez, Aste Santuko Kirol Kanpusa antolatuko du. Martxoaren 21ean, 22an, 23an, 29an, 30ean, 31n eta apirilaren 1ean, zazpi egunez, 09:30etatik 12:30etara, IMH kiroldegian, Olaizaga kiroldegian eta Mintxetan hainbat kirol egiteko aukera izango dute partaideek. 8 eta 14 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago kanpusa, hau da, 2008 eta 2002 urte bitartean (biak barne) jaiotakoei. Kirol Patronatuko bazkide direnek 40 euro ordaindu behar dituzte eta 45 euro bazkide ez direnek. Interesa dutenek Olaizaga kiroldegian eman dezakete izena otsailaren 29tik martxoaren 14ra arte.

Idi dema jokatuko dute bihar

Elgoibarko Artazok eta Orioko Olidenez idi-dema jokatuko dute bihar, hilak 27, Sigmako probalekuan. Murgil harria (1.775 kilo) mugitu beharko dute idiek ordu erdiko lanean. 1.200 euro jarriko ditu alde bakoitzak eta nahi duen karreteroa ere alde bakoitzak aukeratu du. Goizean egingo dute pisaketa, 10:00etan, eta 22:00etan hasiko da desafioa.



Emaitzak

FUTBOLA

Haundi 2 – Real Union 0
 Elgoibar 3 – Armagiñak 0 (1. Erreg.)
 Zarautz 6 – Elgoibar 2 (Jubenilak)
 Elgoibar 2 – Tolosa 0 (A Kadeteak)
 Elgoibar 1 – Arrasate 1 (B Kadeteak)
 Elgoibar 3 – Hondarribia 3 (Oho. inf.)
 Amaiak Bat 1 – Elgoibar 0 (Inf. Txiki)
 Hondarribia 1 – Elgoibar 6 (Alebin)
 Elgoibar 2 – Urki 3 (Alebin)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile 8 – Ebrosala 4 (Naz. B)

SASKIBALOA

Viento Sur Elg. 54 – Goierri Verko 5

ESKUBALOA

Alcorta Forging Group 29 – Pulpo 21 (Senior giz.)
 Bergara 23 – Gabaz Elgoibar 33 (Sen. giz.)
 Ereintza 21 – Tecnifuelle 18 (Jub. mut.)
 Kukulaga 24 – Pneumax Elg. 24 (Kad. nes.)
 Casa Astigarraga 24 – Untzilla abokatua Legazpi 23 (Kad. nes.)
 Deca Elg. 41 – Pulpo 31 (Kad. mutilak)
 Zarautz 30 – Bankoa Elg. 35 (Kad. mut.)
 Dario Bus Elg. 28 – Aiala D 22 (Inf. nes.)
 Cometel Elg. 24 – Urnieta 10 (Inf. nes.)
 Federoptikos Ikus 14 – Aloña 10 (Inf. nes.)
 Amenabar 28 – Murgil Elg. 31 (Inf. mut.)

Agenda

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 27
 16:30 Elgoibar – Tolosa (Oho. jub.)
 Domeka, 28
 11:00 Elgoibar – Tolosa (Ale.)
 12:15 Elgoibar – Usurbil (Ale.)
 12:15 Antiguoko – Eibar (Ale.)

ESKUBALOA (Olaizaga kiroldegian)

Zapatua, 27
 10:00 Tecnifuelle – Aiala (Jub. nes.)
 11:15 Deca – Basauri (Kad. mut.)
 16:00 Beristain – Zarautz (Jub. mut.)
 17:45 Gabaz – Ordizia (Senior giz.)
 19:30 Lauko – Muskiz (Senior emak.)
 Domeka, 28
 09:30 Sukia – Aloña (Alebin. nes.)
 10:45 Txarriduna – Ereintza A (Inf. mut.)
 12:00 Murgil – Ereintza C (Inf. mut.)

ESKUBALOA (IMH kiroldegian)

Domeka, 28
 09:45 Sukia – Eibar (Alebin. nes.)
 11:00 Sukia – Eibar (Alebin. mut.)

LANA.....
Eskaerak

Adinekoak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. Esperientzia handia dut. 659 266 248

Lan bila ari naiz. Esperientzia handia daukat adinekoak zaintzen. 690 064 225

Adinekoak zaintzeko prest, orduka edo interna moduan. 632 911 709

Arotz moduan berehala lanean hasteko prest. 631 209 366

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Etxean bertan bizitzen edo orduka. 658 273 486

Astean zehar lan egingo nuke: etxe garbiketa, nagusiak paseatu eta haien jarrapena egin... Diplomaturia: etxeko asistentzia auxiliarrak. Esperientzia eta informea. Euskalduna. 675 711 658

Etxeko lanak egiteko eta adinekoak edo umeak zaintzeko prest. 643 398 715

Adinekoak zaintzen lan egingo nuke etxean bertan bizi izaten edo orduka. Eskarmentua dut. Berehala hasteko prest. 633 808 931

Umeak eta adinekoak zaintzen edo garbiketa lanetan jarduteko prest. Etxean bertan bizi izaten edo gabez bakarrik. 631 832 388

Sukaldari laguntzaile edo adinekoen zaintzaile lanetan jarduteko prest. 677 259 560

Adinekoak zaintzeko prest. Etxean bertan bizi izaten edo orduka. Baserriko lanak edo garbiketa lanak egiteko prest. 686 077 316

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Interna lan egiteko prest. 688 638 980

Adineko pertsonak zainduko nituzke. Interna lan egiteko prest. 688 858 391

Adinekoak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. Interna, kanpoan edo orduka. 631 995 976

Adinekoak eta umeak zaintzeko prest. Orduka. 631 925 362

Adinekoak eta umeak zaintzeko, portalak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile lanetarako prest. 612 214 571

Pintore moduan, eraikuntzan edo adinekoak zaintzen lan egiteko prest. 612 214 602

Adineko edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 688 959 575

Adineko edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 677 709 164

Adineko pertsonak zainduko nituzke asteburuetan. Interna lan egiteko prest. Erreferentziak daukat. 632 573 554

Pertsona arduratsua adinekoak edo umeak zainduko lituzke. Interna lan egiteko prest. Esperientzia eta erreferentziak daukat. 631 291 645

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 692 588 534

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetarako prest. 617 571 210

Lan bila. Elektrizitate, iturgintza eta pintura lanak egiteko prest. 10 urteko esperientzia. 632 873 111

Pertsona nagusiak zaintzeko prest. Erreferentziak daukat. 631 534 125

Haurrak eta adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanetan jarduteko prest. 655 094 780

Etxeak, hotelak, jatetxeak eta zaharren egoitzak garbitzeko prest. Interna, orduka edo gauka aritu naiteke. Esperientzia handia daukat. 626 914 904

Eskaintzak

Pertsona bat behar dugu batxilergoko 2. mailako ikasle bati marrazketa teknikoko eskola partikularrak emateko. 620 459 966

Salento pizzerian asteburuetarako pizza banatzailea behar da. 50 zilindrakak mota gidatzeko baimena behar da. 680 489 416 edo 943 740 196

4 eta 5 ejedun CNC mekanizazio zentrorako ofiziala behar da. Makinak prestatzen esperientziaduna. Pieza unitarioak. Bidali Curriculumak helbide honetara: 177 posta kutxatila. 20600 Eibar.

ETXEBIZITZAK.....
Alokairua

Elgoibarren etxebizitza alokagari hartuko nuke. 699 609 190

Elgoibarren etxebizitza alokagari hartuko nuke. 631 291 645

LOKALAK.....
Alokairua

Xagua taberna alokatzen da, San Franzisko kalean. 605 741 485

GARAJEAK.....
Salgai

Garaje itxia salgai, Jausoro plazan. 19.000 €. Autoa eta moto bat sartzen dira bertan. 685 707 879

Garaje itxia salgai Jausoron (Santa Klarara bidean). 696 874 842

BESTELAKOAK.....

Muleta galdu dut autoitik jausita. Pedro Muguruza kaletik abiatu nintzen. Norbaitek aurkitu badu deitu mesedez. 943 531 648

Koloretako loredu aterki bat topatu dut Trenbide kaleko igogailuko pasabide urdinean. Udaltzaingoa dago.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net

**Ugazaben Batzordeak, aurrez adostuz gero, derrigortu ditzake jabeak komunitate gastuak banku-helbideratze bidez ordaintzera?**

Legearen arabera etxean eta lokalen jabe guztiak derrigortuta daude komunitate kuotak ordaintzera Ugazaben Batzordeak aurrez zehaztutako epean eta erabakitako moduan.

Komunitateak, Ugazaben Batzordearen bitartez, erabaki ahal izango du ordainketa banku-helbideratze bitartez edo komunitatearen kontu-korrontean dirua sartuz egin behar den. Ordainketa sistema hori betetzera derrigortuta egongo dira jabe guztiak, salbuespenik gabe. Hau da, ezingo da kobratzeko beste sistema ezberdin bat jarri espresuki ugazabaren batentzat.

Esandako moduan eta dagokien epean ordaintzen ez dutenak berankor (moroso) izendatuko dituzte legeak horientzat jartzen dituen ondorioekin.

AHOLKUA: Praktikan, ordea, komunitateetan, beste ordainketa aukera batzuk ezartzen dituzte. Izan ere, komunitateko gastuak ordaintzeko eta komunitateak berak ondo funtzionatzeko, komunitate-kuota guztiak kobratzea da helburu nagusia.

ROSA Mª PINTADO: Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.



Zorionak **Prinzesa**. Oso ondo pasa zure egunean. Patxo handi bat etxe-koen partez. Maite zaitugu.



Zorionak, **Naia**, bihar zure 9. urtebetetzia dalako. Topera ospatuko dogu bixarko bazkarixan!



Zorionak, **Harritz!** Igandean 5 urte! Ondo pasatuko dugu. Muxu handi bat familia-koen partez.



Zorionak, **Gorka!** Ondo asko ospatu genuen zure eguna. Muxu asko familia-koen partez eta mila kilo zorion Noaren partez.



Zorionak, **Iratzi!** martxoaren 1ean 5 urte beteko dituzulako. Familia-koen eta bereziki Iñakiren partez.



Zorionak, **Mikel**, txapeldun! zure 8. urtebetetzean. Muxu handi bat familia-koen eta bereziki Alexen eta Luciaren partez.



Zorionak, **Hodei!** Gure txapeldunak dagoneko urtetxo bat bete du. Muxu handi bat etxe-koen eta bereziki Nahia-koen partez.



Zorionak, **Oinatzi!** Sei patxo potolo, txapeldun. Familiako guztion eta, batez ere, Nahikari eta Aintzaren partez.



Zorionak, **Ene-ritz**, sei urte bete dituzulako. Familia guztia-koen partez.



Ostirala eta gainera urtebetze festa! Hori da patxo! Zorionak, **Luken!**



Zorionak, **Victor!** Otsailaren 27an 7 urte. Ana-oren eta zure gurasoen partez.



Zorionak, **Duna**, printzesa. Amama Carmen eta Aittita Joseren partez.



Zorionak **Jakes!** Xubanen partez muxu handi bat!



Zorionak, **Itxaso** eta **Danel**. Patxo handi bat etxeko danon partez.




IRAZABAL

clínica dental



Ainhoa Zulueta
Odontóloga
Atarriberru & Oteizak
8:05 - 22:00
Deposituak
10:00 - 14:00

Familiaren Osasuna

Zure familiaren ahoaren osasunaz arduratzen garelako

Gutaz fidatu eta jarrai iezaguzu

Facebooken: Clínica Dental Irazabal Eta twitterren: @Clinicairazabal



FINANTZIAZIO BEREZIA. Abantaila ekonomiko handiak eta finantziakzio onak hebeak. GALDETU



IRAZABAL
clínica dental

Julian Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR
Tel: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com



Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean

☎ 943 744 112

BARREN Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

ARMAZOIA + LENTEAK 89€-TIK



50% IN VOGUE

Adriana Lima
in Rio de Janeiro, Brazil.
www.eyewear.com



Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio
RPS 183/12 www.uzurioptika.com

26 BARIKAKUA

22:00 Antzerkia: *Caperucita Feroz* ko media musikala. Mendaroko San Agustin Kulturgunean.

22:30 Zinegiro goritan. Beldurrezko filmak. *Euskal Herriaren ABDak*. Proiektuko partaide bat izango da. Sutegixa Elgoibarko gaztetxean.

27 ZAPATUA

Goizean, Errigorako olio dastatzeko aukera. Kalebarren plazan.

09:00-13:00 Ezker abertzalearen Abian prozesua. Eztabaida faseko lehen bilera. Kultur Etxeko Sotoan.

09:00-14:00 Baserriko produktuen salmenta. Kalebarren plazan.

11:00 Pintxoak Elgoibarko baserri eta harategietako produktuekin. Mintxeta Atletismo taldeak prestatuta. Kalebarren plazan.

12:00 Kale kantariak. Kalebarren plaza tik hasita.

12:00 Mendaroko Aingeru Guardako jaien hasiera. Kanpaien errepika.

12:30-14:30 Gatzatu tailerra. Kalebarren plazan.

Eguedititik arratsaldera Ganadu erakusketa. Aita Agirre plazan.

29 ASTELEHENA

10:00 Loreak emakume taldearen aurkezpena. Udaletxean.

17:00 Bisita gidatua: San Bartolome parroikia (gaztelaniaz). Gidaria: Pello Arrieta. Antolatzailea: Haizea. Kalegoen plazan.

1 MARTITZENA

06:00 Arnaldo Otegi Logroñoko espetxean harrera egiteko autobusaren irteera. Txankakuan. Txartelak: Jai Alai tabernan.

08:00 eta 12:00 Mezak. Mendaroko Aingeru Guardako elizan.

18:30 *Otegi free* jaialdia. Txalaparta, bertsolariak, dantzariak. Bad sound system, Fermin Muguruza, La Basu eta Aneguria. Kalegoen plazan.

19:00 IMHren eta Meka Lanbide Eskolaren prestakuntza eskaintzari buruzko informazio saioa. Arreiturre Institutuko Batxilergoko 1. eta 2. mailetako ikasleentzako eta gurasoentzako. Arreiturre Institutuko eta Meka Lanbide Eskolako bilera-gelan.

19:15 Oleo ikastaroaren hasiera. Ordubeteko 20 saio, martitzen eta eguenetan (60 euro materialak barne). Maiatzaren 20ra arte. Izenematea: 666 557 538. Egur arte tailerraren lokaletan.

2 EGUAZTENA

19:00 Podemos-Ahal Duguren bilera estatutuak irakurri eta onartzeko. Kultur Etxean.

19:30 Kontzentrazioa: Ainara Ladronen eta beste lau gazteren aurkako epaiketa salatzeke, Libre Elgoibarrek deituta. Kalegoen Plazan.

3 EGUENA

18:30 Solasaldi mediku-gastronomikoa. Minbiziaren aurkako kanpaina. Gure Bide elkartearen.

4 BARIKAKUA

Goizean, Udaberriko Txokoetan eta Zarauzko Egonaldietan izena emateko azken eguna. Elgoibarko Izarran.

18:30-20:30 Odol-ematea. Osasun zentroan.

23:00 Kontzertua: Highlights taldea. Sarrera: 3 euro. Antolatzailea: Sinuose. Kultur Etxeko sotoan.

morroskillo
Liburuak, papera, tabakoak, opariak...

SALMENTA GUNEA

Loteria eta apustuekin hasten gara datorren astelehenean, hilak 29 (bisiestoa) Euromillones, Primitiba, Bonolotoa, Kiniela, Loteria, etab.


**ZATOZ JOKATZERA!
ZORTE ONA OPA DIZUEGU!**

Herriko Enparantza, 18
20850 MENDARO (Gipuzkoa)
Tel.: 943 033 631 - Faxe: 943 755 235
E-posta: morroskillo@denda@hotmail.com

Zinea (Herriko Antzokian)

'La novia'

26 Barixakua, 21:30
 27 Zapatua, 19:00/22:15
 (Jatorrizkoa azpituarekin)
 28 Domeka, 19:00
 29 Astelehena, 21:30



'Paperezko hegazkinak'

28 Domeka, 16:30



Telefono interesgarriak

Elgoibarko Izarra.....	943 741 626	Ludoteka.....	943 748 883	Gurutze gorria.....	943 743 864
Udaltzaingoa.....	943 741 394	Gazteleku.....	943 743 228	Eusko tren.....	902 543 210
Udalaren arreta bulegoa.....	943 741 050	Enplegua-Merkataritza.....	943 741 050	Pesa.....	902 101 210
Udaleko idazkaritza.....	943 743 700	Emugi.....	943 747 371	Jokalari anonimoak.....	657 710 156
Bake epaitegia.....	943 741 630	Kiroldegia.....	943 744 415	Alkoholiko anonimoak.....	629 141 874
Gizarte Ongizate saila.....	943 741 008	Mintxeta.....	943 747 356	Correos - Posta.....	943 741 547
Hirigintza.....	943 744 384	Musika eskola.....	943 742 145	Mendaroko Udala.....	943 033 282
Mankomunitatea.....	943 700 799	Udal euskaltegia.....	943 742 731	Liburutegia.....	943 033 291
Debemen.....	943 744 067	AEK euskaltegia.....	607 601 423	Bake Epaitegia.....	943 033 289
Artekaritza (Hazienda).....	943 744 414	KZgunea.....	943 023 640	Eguneko Zentroa.....	943 031 746
Berdintasun saila.....	943 741 050	Jubilatuaren biltokia.....	943 740 526	Mendaro Ikastola.....	943 756 141
Euskara saila.....	943 744 366	San Lazaro egoitza.....	943 740 296	Haurtzaindegia.....	943 755 219
Kultura saila.....	943 742 158	Eguneko zentroa.....	943 744 565	Musika Eskola.....	943 244 275
Udal liburutegia.....	943 743 525	Kontsumo bulegoa.....	943 743 088	Taxi.....	607 57 57 28
Gazteria saila.....	943 531 319	Taxi geltokia.....	943 740 898	Ospitalea.....	943 032 800
Gazte informazio gunea.....	943 257 986	Larrialdiak.....	112		

Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

26 Barixakua BARRENETXEA
 27 Zapatua IBAÑEZ
 28 Domeka IBAÑEZ
 29 Astelehena GARITAONANDIA
 1 Martitza ETXEBERRIA
 2 Eguaztena FERNANDEZ
 3 Eguna YUDEGO
 4 Barixakua ORUESAGASTI

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara
 ETXEBERRIA (Elgoibar) - Santa Ana, 1 - Tel.: 943 740 140


00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar)
 Fermin Calbeton, 19 - Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,
 Garagartza (Mendaro) - Tel.: 943 756 142
 * Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze) - Tel.: 943 751 638
 * Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze)
 Tel.: 943 751 384

Elena Miguez Perez

2016ko otsailaren 20an hil zen, 86 urte zituela.



**Gure ondotik joan zara,
 baina betiko izango zaitugu
 gure bihotzetan.**

Etxekoak



Eire Vila

Mikel Olaizola



Hiru minutu berandu dator autobusa, 8:52 dagoeneko, eta Naiara urduri erlojuari begira, klasera berandu iritsiko delako gaur ere. Ahmed lasaiago, Eibarrera doa, Ogasunarekin papel batzuk konpontzera. Mari Karmeni berriz mezezi dio Azitaingo Lidl-era autobusa hartzeak, beti lortzen baitu bi-hiru euro aurrezteak, eta bide batez galtzerdiak erosiko ditu Urkizuko azokan.

Zain gaude, baina ilusio gehiegirik gabe, datorrena joandakoaren antzekoa izango delakoan beti. Gaur gidari atsegina tokatu da; egunonak irribarrez. Paquitak berriz Extremadurako azentuz agurtu gaitu sarreran, eta aldamenean jarri ordurako hasi zait kontatzen resonantzia egin diotela Mendaron, orain bi urte erori zelako eskailera garbitzen ari zela irrist eginda, eta gozotik ez zaiola lehengora itzuli mokorra, nahiz eta bera ema-

kume gogorra izan den beti, halakoak baitzituen ama eta amona ere, Las Hurdes ingurukoak. Eta ea nora noan ni. Irribarre egin diot eta irakurtzen ari nintzen liburuarekin jarraitu, argi neutro eta heze usaineko espazio mugikor honetan.

Benetako gizonak (zuriak, heterosexuak, probetxuzko ogibidedunak) autoz doaz batetik bestera; erdigunean daude, ibilgailuen mesedetan espazio publikoa nola desmantelatu dugun ikusi besterik ez dago. Hemen bestelakoak elkartu ohi gara: gazteak, emakumeak, etorkinak, adinekoak... Despistatutako gizon humanistaren bat asko jota. Autorik gabeko jendea funtsean.

Sinetsi nahi dut hemen lehertuko dela, lehertzekotan, iraultza. Sinetsi nahi dut aldirietako autobusetan dagoela etorkizuna, betiko langile auzoetan, gehiengoa den ertzetan. Eta espero dut nik ere karneta atera eta zentroaren parte bihurtu aurretik lehertzea. Guztiz gizondu aurretik.

“Hemen bestelakoak elkartu ohi gara: gazteak, emakumeak, etorkinak, adinekoak... Despistatutako gizon humanistaren bat asko jota. Autorik gabeko jendea funtsean”



ESKERTZA

Eulogio Echeverria Mendizabal

2016ko otsailaren 21ean hil zen, 94 urte zituela.

***Denborak samina arintzen omen du,
baina zure oroitzapen
goxoa ezerk ez du lausotuko.***

Ettxekoak



IX. URTEURRENA

Ramon Untzilla Aranberri

2007ko otsailaren 27an hil zen, 42 urte zituela.

***Kaixo, Ramon
ta memoria zure irria
ta memoria zure begiak
ta memoria zure keinua
ta memoria zure izatea
ta memoria bizi zaitugu
ta memoria zure aiduru
ta memoria zaitugu katigu
ta memoria zaitugu***

Ettxekoak



I. URTEURRENA

Pedro Regil Irureta

2015eko otsailaren 28an hil zen, 82 urte zituela. Haren Oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, otsailak 27, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome Deunaren parrokian. Joango zaretenei alde zuretik eskerrak.

***Gogorra da onartzea gehiago
ez zaitugula ikusiko
baina bizi garen artean
ez zaitugu ahaztuko.***

Ettxekoak



GRADUKO ATE IREKIAK

GOI ESKOLA POLITEKNIKOA

ORONA IDEO · MARTXOAK 5

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

GOIERRI · MARTXOAK 12

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ENPRESAGINTZA FAKULTATEA

OÑATI · MARTXOAK 5

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

BILBAO · MARTXOAK 12

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

**HUMANITATE ETA HEZKUNTZA
ZIENTZIEN FAKULTATEA**

ESKORIATZA · MARTXOAK 12

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

ARETXABALETA · MARTXOAK 12

LARUNBATA, 11:00 / Aula Magna

GASTRONOMIA ZIENTZIEN FAKULTATEA
Basque Culinary Center

DONOSTIA · MARTXOAK 19

LARUNBATA, 10:30 / Aula Magna

ETORRIKO ZARELA JAKINARAZI!

902 110 436

www.mondragon.edu/prest

Maite Carreras
Ingeniaritza elektronikoa
Ikasle ohia eta ingeniaria
AIRBUS-en.

#erronkarakoprest